12.-Incumplimiento.En el supuesto de que no cumplimente adecuadamente el requerimiento en el plazo señalado, se entenderá que ha retirado su oferta.

23. Esleipena.

Kontratazio Mahaiak esleipen proposamena igorriko dio Kontratazio Organoari, eta honek hurrengo bost egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua. Esleipena kontratazio organoak erabakiko du ebazpen arrazoitu baten bidez.

23. Adjudicación.

La Mesa de Contratación elevará propuesta de adjudicación al Órgano de Contratación, el cual deberá adjudicar el contrato dentro de los cinco hábiles siguientes. La adjudicación se acordará por el órgano de contratación en resolución motivada.

Jakinarazpena lizitatzaileei.- Esleipenaren ebazpena lizitatzaileei jakinaraziko zaie, hala badagokio, Kontratazio Mahaiak eskaintzak baloratzeko prestatutako txostenarekin batera.

Notificación a los licitadores - La resolución de adjudicación se notificará a licitadores junto con, en su caso, el informe de valoración de las ofertas emitido por la Mesa de Contratación.

Jakinarazpena egiteko, edozein bide erabiliko da, hartzaileak jakinarazpena jaso duela erakusteko aukera ematen duena. Ahal dela, emailez bidaliko da lizitatzaileek emandako helbide elektronikora.

La notificación se hará por cualquiera de los medios que permiten dejar constancia de su recepción por el destinatario. Preferentemente se efectuará por medios electrónicos en la dirección electrónica aportada por los licitadores.

Esleipenaren publizitatea: esleipena eta eskaintzen balorazio txostena kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.

Publicidad de la adjudicación: la adjudicación y el informe de valoración de las ofertas se publicará en el perfil de contratante.

24. Kontratua hobetzea.

24. Perfeccionamiento del contrato.

Kontratua gauzatzen da formalizatzen denean.

El contrato se perfecciona con su formalización.

Ulertuko da kontratazio organoak bere egoitza daukan tokian egina dela kontratua.

El contrato se entenderá celebrado en el lugar donde se encuentre la sede del órgano de contratación.

25. Kontratua formalizatzea.

25. Formalización del contrato.

Kontratua lizitazioaren baldintzei zehatz-mehatz egokitzen zaien administrazio-dokumentu batean formalizatu beharko da, eta dokumentu hori titulu nahikoa izango da edozein erregistro publikotara sarbidea izateko. Hala ere, kontratistak posible du eskatzea kontratua eskritura publiko bihurtzea, bere gain hartuz horren gastuak.

El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajuste con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos.

Kontratua formalizatzen den dokumentuan inolaz ere ezingo da sartu esleipenaren baldintzak aldatzen duen klausularik.

En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación.

26. Formalizatzeko epea.

26. Plazo para la formalización.

Kontratuari Sektore Publikoko Kontratu Legearen 44. artikuluaren arabera kontratazio-arloko errekurtso berezia jar ahal izango balitzaio, kontratua ezin izango litzateke gauzatu harik eta hamabost egun baliodun

Si el contrato fuera susceptible de Recurso Especial en materia de contratación conforme al artículo 44 LCSP la formalización no podrá efectuarse antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la

igaro arte esleipenaren jakinarazpena lizitatzaileei eta hautagaiei bidaltzen zaien egunetik.

Gainerako kasuetan, kontratua formalizatuko da lizitatzaile eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena egiten zaien egunaren biharamunetik hasi eta hurrengo hamabost egun balioduneko epean, SPKLaren 151. artikuluari jarraiki.

Kontratua ezingo da gauzatzen hasi aurretik formalizatu gabe, salbu espedientearen tramitazioa presakoa edo larrialdikoa denean.

notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos.

En los restantes casos la formalización del contrato deberá efectuarse no más tarde de los quince días hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos en la forma prevista en el art. 151 LCSP.

No podrá iniciarse la ejecución del contrato sin su previa formalización, excepto cuando la tramitación del expediente sea con carácter de urgencia o emergencia.

27. Ez formalizatzearen ondorioak.

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik ezinezkoa gertatzen bada kontratua formalizatzea legez ezarritako epeetan, urrats hauek emango dira:

- Oinarrizko lizitazio-aurrekontuaren (BEZ kanpo) %3ko zenbatekoa eskatuko zaio zigor gisa. Diru hori, lehenik eta behin, behin betiko bermearekin ordainduko du, halakorik jarri bada, SPKLaren 71.2. artikuluko b) letran ezarritakoa ukatu gabe.
- Kontratua hurrengo lizitatzaileari esleituko zaio, eskaintzak sailkatu diren hurrenkeraren arabera, aldez aurretik errekerimendua eginda eta Plegu honetan esaten den dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak Administrazioari egozten ahal bazaizkio, atzerapenak eragin diezazkiokeen kalte eta galeren ordaina emango zaio kontratistari.

27. Efectos de la no formalización.

En el supuesto de que no fuera posible la formalización del contrato en los plazos señalados legalmente por causas imputables a la adjudicataria se procederá a realizar las siguientes actuaciones:

- Exigirle el importe del 3% del presupuesto base de licitación (IVA excluido), en concepto de penalidad, que se hará efectivo en primer lugar contra la garantía definitiva, si se hubiera constituido, sin perjuicio de lo establecido en la letra b) del art. 71.2 LCSP.
- Adjudicar el contrato a la siguiente licitadora por el orden en que hayan quedado clasificadas sus ofertas, previo requerimiento y presentación de la documentación indicada en este pliego.

Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar.

28. Aseguruak.

Kontratua formalizatu ondoren, esleipendunak dokumentu hau aurkeztu beharko du:

ASEGURU-ENTITATEAREN ZIURTAGIRIA egiaztatzeko indarrean dagoela kontratistak sinatutako erantzukizun zibileko poliza.

28. Seguros.

Una vez formalizado el contrato el adjudicatario, deberá aportar el siguiente documento:

CERTIFICADO DE LA ENTIDAD ASEGURADORA que acredite que tiene en vigor póliza de responsabilidad civil suscrita por el contratista.

Esleipendunak aseguru poliza hauek kontratatu eta bere kontura mantenduko ditu kontratuaren iraupen eta bermealdian:

El adjudicatario contratará y mantendrá a su costa durante el periodo de duración y plazo de garantía del contrato las pólizas de seguro siguientes:

Erantzukizun zibileko asegurua, orokorra edo ustiapenekoa, patronala eta amaitutako lanena, aseguratu gisa agertuko direla kontratista eta, hala badagokio, azpikontratista.

Seguro de responsabilidad civil, en sus vertientes generales o de explotación, patronal, y de trabajos terminados incluyendo como asegurado al contratista, y el subcontratista, en su caso.

Ustiapeneko erantzukizun zibileko frankizia ez da izango 10.000 eurotik gorakoa, eta ezbeharragatiko kalte-ordainaren gutxieneko muga hauxe izango da:

La franquicia para la responsabilidad civil de explotación no podrá ser superior a 10.000 euros, y el límite mínimo de indemnización por siniestro, será de:

LIZITAZIO-PREZIOA (EUROTAN)	KALTE-ORDAINAREN GUTXIENEKO MUGA (EUROAK)
1.000.000€taraino	300.000
1.000.001€ - 3.000.000€	600.000
3.000.001€ - 9.000.000€	1.500.000
9.000.001€ - 25.000.000€	3.000.000
25.000.001€ - 75.000.000€	6.000.000
75.000.000€ baino gehiago	12.000.000

PRECIO DE LICITACIÓN (EUROS)	LÍMITE MÍNIMO DE INDEMNIZACIÓN (EUROS)
Hasta 1.000.000 €	300.000
Entre 1.000.001 y 3.000.000	600.000
Entre 3.000.001 y 9.000.000€	1.500.000
Entre 9.000.001 y 25.000.000€	3.000.000
Entre 25.000.001 y 75.000.000€	6.000.000
Más de 75.000.000€	12.000.000

Nolanahi ere, esleipendunak beharko ditu ordaindu frankiziaren zenbatekoa eta aseguru-polizetan ezarritako mugak gainditzen dituzten kalte eta galerak, bai eta poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuak ere.

En todo caso serán soportados por el Adjudicatario los daños y perjuicios en la cuantía de la franquicia y en lo que superen los límites que se establezcan en las distintas pólizas de seguro; así como en los bienes y riesgos no cubiertos en las mismas.

Kontratuaren bukaera aurreikusitako data baino beranduago bada, behar diren luzapenak kontratatuko

En caso de producirse un retraso en la finalización del contrato sobre la fecha prevista, se procederá a la

dira eta esleipendunak dagokion gainprima ordaindu beharko du.

contratación de las prórrogas necesarias debiendo el Adjudicatario pagar la sobreprima que corresponda.

II. ZATIA

KONTRATUEN ONDORIOAK, KONTRATUAK BETETZEA ETA AMAITZEA

29. Lanen hasiera.

Lanak hasteko data ofiziala izango da Hasierako Akta sinatzen den egunaren biharamuna, eta akta hori sinatzen ez bada, kontratua sinatzen den egunaren biharamuna.

Presakakotzat jotako espedienteetan, exekuzio-epea kontatzen hasiko da administrazioak idatziz hasteko agindua ematen duenetik, eta, administrazioak agindu hori ematen ez badu, esleipenaren jakinarazpena jaso eta kontratistak behin betiko bermea ematen duen egunaren biharamunetik aurrera.

30. Kontratuaren arduraduna.

Kontratazio-organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du, eta pertsona horren ardura izango kontratatutako zerbitzuaren zuzendaritza eta ikusketa. Horretarako, lana gainbegiratuko du, erabakiak hartuko ditu eta behar diren jarraibideak emango ditu ziurtatzeko hitzartutako prestazioa egoki egiten ari dela. Kontratuaren arduradunak eta bere laguntzaileek sarrera librea izango dute kontratatutako zerbitzua egiten den tokietara, kontratistak izendatzen duen pertsonak lagunduta.

31. Lan-programa.

Baldintza teknikoen Pleguan hala eskatzen bada, kontratistak lan-programa bat helarazi beharko dio kontratuaren arduradunari, dagokion klausulan eskatzen diren datuak eta informazioak dituena.

PARTE II

DE LOS EFECTOS, CUMPLIMIENTO Y EXTINCIÓN DE LOS CONTRATOS

29. Comienzo de los trabajos.

La fecha oficial de comienzo de los trabajos será el día siguiente de la firma del Acta de Inicio y en caso de no producirse esta, desde el día siguiente a la formalización del contrato.

En los expedientes declarados de urgencia el plazo de ejecución se computará desde la orden de inicio emanada por escrito de la Administración y, en caso de no producirse ésta, desde el día siguiente al recibo de la notificación de adjudicación y prestación por el contratista de la garantía definitiva.

30. Responsable del contrato.

El órgano de contratación podrá designar una persona responsable del contrato a la que corresponderá la dirección e inspección de la ejecución de la prestación contratada y que, a tal efecto, supervisará la ejecución y adoptará las decisiones y dictará las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada. La persona responsable del contrato y sus colaboradores tendrán libre acceso a los lugares donde se realice la prestación contratada, acompañados por la persona designada por la contratista.

31. Programa de trabajo.

En el caso de que se exija en el pliego de prescripciones técnicas el contratista deberá entregar al responsable del contrato, un programa de trabajo que incluya los datos e informaciones especificados en la cláusula correspondiente.

Lan-programak bete egingo ditu Pleguetan eta, hala badagokio, eskaintzan ezarrita dauden epeak, eta Lan Zuzendaritzak onartuko du.

El programa de trabajo, que se ajustará a los plazos fijados en los pliegos y, en su caso, en la oferta, y será aprobado por la Dirección de Obra.

32. Kontratua betetzea.

Kontratua kontratistaren arrisku eta benturan burutuko da, SPKLren 197. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hitzarmenari erantsitako agiriak edo Administrazioak onartutako jarraibide, plegu edo era guztietako arauak ez ezagutzeak ez du esan nahi enpresak horiek bete behar ez dituenik.

Kontratista arduratuko da egiten dituen lanen eta egiten dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaz, bai eta kontratuaren exekuzioan gertatzen diren hutsegiteek, akatsek, metodo desegokiek edo ondorio desegokiek Administrazioarentzat edo hirugarrenentzat dakartzaten ondorioez ere.

32. Cumplimiento del contrato.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista según lo dispuesto en el art.197 LCSP.

El desconocimiento en relación con lo pactado, en cualquiera de sus términos, de los documentos anejos que forman parte del mismo o de las instrucciones, pliegos o normas de toda índole aprobadas por la Administración, no eximirá a la empresa de la obligación de su cumplimiento.

El contratista será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las prestaciones y servicios realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.

33. Ez-betetze partzial edo akastuna eta zigorrak (SPKL, 192. art.).

Karatulan ezarritako berme-epea igaro arte, enpresa kontratistaren ardura izango da kontratatutako lanak behar bezala egin direla ziurtatzea eta bertan egon daitezkeen akatsak konpontzea, eta ez zaio baliatuko salbuespentzat eta ez dio ezelango eskubiderik emango Administrazioaren ordezkaritzak lan horiek egin bitartean aztertu edo onartu izanak edo egiaztapen, balorazio edo ziurtagiri partzialetan onartu izanak.

Enpresa kontratistak ez du erantzukizunik izango lan akastuna edo gaizki egindakoa Administrazioaren agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorioa denean.

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan zehaztutako prestazioak hein batean ez baditu betetzen, Administrazioak, kasuaren inguruabarrak kontuan hartuta, posible izango du

33. Incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso y penalidades (art.192 LCSP).

Hasta que transcurra el plazo de garantía fijado en la Carátula, la empresa contratista responderá de la correcta realización de los trabajos contratados y de los defectos que en ellos hubiere, sin que sea eximente, ni le dé derecho alguno el hecho de que la representación de la Administración los hayan examinado o reconocido durante su elaboración o aceptado en comprobaciones, valoraciones o certificaciones parciales.

La empresa contratista quedará exenta de responsabilidad cuando el trabajo defectuoso o mal ejecutado sea consecuencia inmediata y directa de una orden de la Administración.

Cuando el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incumplido parcialmente la ejecución de las prestaciones definidas en el contrato, la Administración podrá optar, atendidas las circunstancias del caso, por su

kontratua suntsiaraztea edo Karatulan aurreikusitako zigorrak ezartzea.

- Karatulan beste zigorrik aurreikusten ez bada, kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzea honela zigortuko da:
  Arau orokor gisa, horietako bakoitzaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren %1 izango da, salbu eta, arrazoituta, kontratazio-organoak irizten badio ez-betetzea larria edo oso larria dela. Kasu horretan, kontratuaren prezioaren %5 edo %10eko legezko gehienekora iritsi ahal izango dira (BEZ gabe), hurrenez hurren. Arau-hauste bat behin eta berriro gertatzea kontuan hartu ahal izango da larritasuna baloratzeko.
  Nolanahi ere, horietako bakoitzaren zenbatekoak ezin izango dira kontratuaren prezioaren %10 baino gehiago (BEZ gabe), eta zenbateko osoak ez du gaindituko kontratuaren prezioaren %50.
- Nolanahi ere, zigorrak ezartzeak ez du kontratista salbuetsiko legez daukan obligaziotik akatsak konpontzeko.

resolución o por la imposición de las penalidades previstas en la Carátula.

- Para el caso que la Carátula no prevea otras penalidades el cumplimiento defectuoso de la prestación objeto del contrato se penalizará en los siguientes términos:
  Como regla general, la cuantía de cada una de ellas será un 1% del precio del contrato, salvo que, motivadamente, el órgano de contratación estime que el incumplimiento es grave o muy grave, en cuyo caso podrán alcanzar hasta un 5% o hasta el máximo legal del 10%, del precio del contrato (IVA excluido), respectivamente. La reiteración en el incumplimiento podrá tenerse en cuenta para valorar la gravedad.
  En cualquier caso, las cuantías de cada una de ellas no podrán ser superiores al 10 por ciento del precio del contrato, IVA excluido, ni el total de las mismas superar el 50 por cien del precio del contrato.
- En todo caso, la imposición de las penalidades no eximirá al contratista de la obligación que legalmente le incumbe en cuanto a la reparación de los defectos.

34. Epea betetzea eta atzerapenagatiko zigorrak (SPKL, 193. art.).

Kontratista behartua dago kontratua burutzera kontraste-dokumentuan hartarako ezarritako epe osoaren barruan, bai eta kontratua betetzeko ezarritako epe partzialen barruan ere.

Kontratista berandutzan sartzeak ez du behar izango administrazio honen agindurik aldez aurretik.

Kontratua betetzerakoan berandutuz gero, bi kasu bereizi behar dira:

a) Baldin eta kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, guztizko epea edo epe partzialak betetzeko atzerapena izan badu, eta berandutze horrek zentzuz pentsarazten badu ezinezkoa izango dela

34. Cumplimiento del plazo y penalidades por demora (art.193 LCSP).

El contratista está obligado a cumplir el contrato dentro del plazo total fijado para la realización del mismo en el documento contractual, así como de los plazos parciales señalados para su ejecución sucesiva.

La constitución en mora del contratista no precisará intimación previa por parte de esta Administración.

Para el caso de demora en el cumplimiento han de distinguirse dos supuestos:

a) Para el caso de que el contratista, por causas imputables al mismo, hubiere incurrido en demora respecto del cumplimiento del plazo total o de los plazos parciales cuando la demora en el cumplimiento de los mismos haga presumir

guztizko epea betetzea, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua suntsiaraztea, edo eguneko zigorrak ezartzea kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko 0,60 euroko proportzioan (BEZ gabe), non ez den bestelako zigorrik ezarri Plegu honetan.

Berandutzagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren %5aren multiplora iristen diren bakoitzean (BEZ gabe), kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo zigor berriak ezarriz kontratua gauzatzen jarraitzeko. Azken kasu horretan, kontratazio organoak luzatu egingo du kontratua amaitzeko beharrezkotzat jotzen duen epea.

Isunak ordaintzeko, kontratistari ordaindu beharreko kopuru osoa edo zati bat kenduko da, edo, ordainketatik kendu ezin direnean, jarri duen bermea.

b) Zerbitzuak atzeratzen badira, eta atzerapen hori ezin egotzi bazaio kontratistari eta kontratistak esakintzen badu bere konpromisoak betetzea baldin hasierako exekuzio-epea luzatzen bazaio, kontratazio-organoak luzatu egingo dio epe hori eta gutxienez galdutako denboraren berdina izango den epea emango dio, salbu eta kontratistak beste epe txikiago bat eskatzen badu, SPKLren 195.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta tramiteak eta betekizunak SPKLren 100. artikuluari jarraituz arautuko dira. Kontratuaren arduradunak txosten bat egingo du zeinetan adieraziko den kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiren batengatik gertatu den ala ez atzerapena.

Ez-betetze partziala edo akastuna gertatzen bada, edo zigorrik aurreikusita ez daukan atzerapen bat gertatzen bada, edo aurreikusita egon arren Administrazioari eragindako kalteak estaltzen ez balira, Administrazioak kalte-galeren ordaina eskatuko lioke kontratistari.

racionalmente la imposibilidad de cumplimiento del plazo total, la Administración podrá optar indistintamente por la resolución del contrato o por la imposición de penalidades diarias y en la proporción de 0,60 euros por cada 1.000 euros del precio del contrato (IVA excluido) a no ser se hayan establecido penalidades distintas en la carátula de este pliego.

Cada vez que las penalidades por demora alcancen un múltiplo del 5 por 100 del precio del contrato, IVA excluido, el órgano de contratación estará facultado para proceder a la resolución del mismo o acordar la continuidad de su ejecución con imposición de nuevas penalidades. En este último supuesto, el órgano de contratación concederá la ampliación del plazo que estime necesaria para la terminación del contrato.

Las penalidades se harán efectivas mediante deducción de las cantidades que, en concepto de pago total o parcial, deban abonarse al contratista o sobre la garantía que, en su caso, se hubiese constituido cuando no puedan deducirse del pago.

b) Si los servicios sufrieren un retraso en su ejecución, y siempre que el mismo no fuere imputable al contratista y éste ofreciera cumplir sus compromisos si se le amplía el plazo inicial de ejecución, el órgano de contratación se lo concederá, dándole un plazo que será, por lo menos, igual al tiempo perdido, a no ser que el contratista pidiese otro menor, de acuerdo con lo establecido en el artículo 195.2 LCSP, regulándose los requisitos y trámites conforme al artículo 100 del RGLCAP. El responsable del contrato emitirá un informe donde se determine si el retraso fue producido por motivos imputables al contratista.

En los supuestos de incumplimiento parcial o cumplimiento defectuoso o de demora en la ejecución en que no esté prevista penalidad o en que estándolo la misma no cubriera los daños causados a la Administración, ésta se exigirá al contratista la indemnización por daños y perjuicios.

35. Prezioaren ordainketa.

Kontratistak eskubidea du benetan gauzatzen dituen zerbitzuak kobratzeko, hitzartutako prezioen arabera, emandako kontratuaren eta Administrazioak emandako jarraibideen arabera.

Kontratuaren ordainketa-erregimena Plegu honen Karatulan ezarritakoa izango da, kontratuaren xede den prestazioa gauzatu ondoren, eta osorik edo partzialki egin ahal izango da, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako mugaegun bakoitzean ordainduta.

Ordainketa kontratistak emandako faktura elektronikoaren bidez egingo da, hurrengo klausulan xedatutakoaren arabera.

Ordainketek konturako ordainketen izaera dute, azken ziurtagirian gertatzen diren zuzenketa eta aldaketen mende daude, eta ez dute suposatzen kontratua onartu eta jasotzea.

Administrazioak hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko du prezioa, emandako zerbitzuak kontratuan xedatutakoarekin bat datozela egiaztatzen duten agiriak onartzen diren egunetik zenbatzen hasita, eta, berandutzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontratistari, hogeita hamar eguneko epe hori betetzen denetik aurrera, berankortasunaren aurkako borroka-neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako baldintzetan.

Kontratistak, kontratua hasteko eskaera idatziz egin ondoren, konturako ordainketak jasotzeko eskubidea izango du kontratua gauzatzeko prestaketa-eragiketen zenbatekoagatik. Nolanahi ere, eskatuko zaio berme bat jartzea abal gisa edo legeak onartutako beste formula baten bidez.

Bestalde, Administrazioaren aurrean kobratzeko eskubidea duten kontratistek eskubide hori laga ahal izango dute zuzenbidearen arabera, ezinbesteko

35. Pago del precio.

El contratista tiene derecho al abono, con arreglo a los precios convenidos, de los servicios que realmente ejecute con sujeción al contrato otorgado, y a las instrucciones dadas por la Administración.

El régimen de pagos del contrato será el establecido en la Carátula de este pliego, una vez ejecutada la prestación objeto del contrato y podrá hacerse de manera total o parcial, mediante abonos a cuenta o, en el caso de contratos de tracto sucesivo, mediante pago en cada uno de los vencimientos que se hubiesen estipulado.

El abono se realizará contra factura electrónica expedida por el contratista de conformidad a lo dispuesto en la cláusula siguiente.

Los abonos tienen el concepto de pagos a cuenta sujetos a las rectificaciones y variaciones que se produzcan en la última certificación y sin suponer en forma alguna la aprobación y recepción del contrato.

La Administración tendrá la obligación de abonar el precio dentro de los treinta días siguientes a la fecha de aprobación de los documentos que acrediten la conformidad con lo dispuesto en el contrato de los servicios prestados, y si se demorase, deberá abonar al contratista, a partir del cumplimiento de dicho plazo de treinta días los intereses de demora y la indemnización por los costes de cobro en los términos previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

El contratista, previa petición escrita tendrá derecho a percibir a la iniciación del contrato abonos a cuenta por el importe de las operaciones preparatorias de la ejecución del contrato. En todo caso, se le exigirá la constitución de garantía en forma de aval, u otra admitida por la Ley.

Por otra parte, los contratistas que tengan derecho al cobro frente a la Administración, podrán ceder el mismo conforme a Derecho, siendo requisito imprescindible la

baldintza izango delarik lagapen-erabaki hori Administrazioari modu frogagarrian jakinaraztea.

Kobrantza-eskubidearen sorburu den harreman juridikoa sortu aurreko lagapenek ez dute eraginik izango Administrazioan. Nolanahi ere, Administrazioak lagapen-hartzailearen aurka jarri ahal izango ditu kontratu-harremanaren ondoriozko salbuespen kausal guztiak (200. artikulua).

Kontratistak kreditu-lagapena kontratatzen badu: zeharo debekatuta dago factoring operazioak formalizatzea kontratu honen ondoriozko operazioak finantzatzeko baliabiderik eduki gabe.

notificación fehaciente a la Administración del acuerdo de cesión.

Las cesiones anteriores al nacimiento de la relación jurídica de la que deriva el derecho de cobro no producirán efectos frente a la Administración. En todo caso, la Administración podrá oponer frente al cesionario todas las excepciones causales derivadas de la relación contractual.(art.200).

En caso de que el contratista contrate la cesión de crédito: queda expresamente prohibida la formalización de operaciones de factoring sin recurso para la financiación de las operaciones que derivan de este contrato.

36. Faktura elektronikoa.

Kontratistak formatu elektronikoa erabili beharko du Udalari fakturak igortzeko.

Kontratistak fakturazio elektronikorako sistema propiorik ez daukanean, Udalaren webgunearen bidez eskuragarri dago faktura elektronikoa igortzeko aukera ematen dion tresna, bai eta PDF-417 espezifikazioaren arabera sortutako autentifikazio-marka grafikoak dituen dokumentu inprimatua lortzeko aukera ere, espedientea dagokion administrazio-unitateak eta konformazioaren ardura duen funtzionarioak "facturae 3.2" formatu elektronikoan jaso dezaten.

Fakturazio elektronikoko sistema propioa duen kontratistaren kasuan, Zerga Agentziak erabiltzen duen "facturae 3.2" formatua erabili beharko da.

Kasu bietan, bakarrik onartuko dira sinadura elektroniko aurreratu baten bidez sinatutako faktura elektronikoak, ziurtagiri aitortu batean oinarrituak eta sinadura sortzeko gailu seguru baten bidez sortuak.

36. Factura electrónica.

El contratista estará obligado a la utilización del formato electrónico para la expedición y remisión de facturas al Ayuntamiento.

En caso de contratista que no disponga de sistema propio de facturación electrónica, está disponible a través de la web municipal, la herramienta que le permita llevar a cabo la expedición de la factura electrónica, así como la obtención del documento impreso con las marcas gráficas de autenticación generadas según la especificación PDF-417, para su recepción, en el formato electrónico “facturae 3.2”, por la unidad administrativa a la que pertenece el expediente así como por el funcionario responsable de su conformación.

En caso de contratista que disponga de sistema propio de facturación electrónica, será obligatorio la utilización del formato “facturae 3.2” utilizado por la Agencia Tributaria.

En ambos casos, únicamente, serán admisibles las facturas electrónicas que hayan sido firmadas mediante una firma electrónica avanzada, basada en un certificado reconocido, generada mediante un dispositivo seguro de creación de firma.

37. Prezioen berrikuspena.

37. Revisión de precios.

Prezioak berrikusiko dira, hala badagokio, SPKLren 103. artikuluan eta Karatulan ezarritakoaren arabera. Kontratuari aplikatu beharreko berrikuspen indize edo formula Karatulan finkatuko da, eta aldaezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta berak zehaztuko du prezioen berrikuspena egun bakoitzean kontratuaren formalizazio-dataren eretzean.

La revisión de precios se realizará, en su caso, en los casos y según lo establecido en el art.103 LCSP y en caso de previsión en la Carátula de este pliego.
El índice o fórmula de revisión aplicable al contrato se fijará en la Carátula y será invariable durante la vigencia del mismo y determinará la revisión de precios en cada fecha respecto a la fecha de formalización del contrato.

38. Lan eta gizarte arloko obligazioak.

38. Obligaciones laborales y sociales.

Kontratistak nahitaez bete behar du lan-arloan eta gizarte-segurantzaren arloan indarrean dagoen araudia.

El contratista está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral y de seguridad social.

Enpresa kontratistak, kontratua gauzatzeko aldi osoan bete beharko ditu aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak, eta esleipendunak langileen soldata-baldintzak bete beharko ditu, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera (SPKL, 122.2 art.).

La empresa contratista está obligada a cumplir durante todo el periodo de ejecución del contrato las normas y condiciones fijadas en el convenio colectivo de aplicación, si bien en todo caso, el adjudicatario estará obligado a cumplir las condiciones salariales de los trabajadores conforme al Convenio Colectivo sectorial de aplicación. (art.122.2 LCSP).

Lehenengo paragrafoan esandako obligazioak ez betetzeak, eta, bereziki, soldatak behin eta berriz ez ordaintzeak edo ordainketa atzeratzeak edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako soldata-baldintzak baino txikiagoak aplikatzeak, ez-betetze larria eta dolozkoa bada, 192. artikuluan (SPKL, 201. artikulua) aipatzen diren zigorrak ezartzea ekarriko du.

El incumplimiento de las obligaciones referidas en el primer párrafo y, en especial, los incumplimientos o los retrasos reiterados en el pago de los salarios o la aplicación de condiciones salariales inferiores a las derivadas de los convenios colectivos que sea grave y dolosa, dará lugar a la imposición de las penalidades a que se refiere el artículo 192 (art.201 LCSP).

Esleipendunaren gain joango da kontratazioaren xede den zerbitzua ematen duten langileen ordainsaria, eta bere kontura izango da edozein kostu sozial eta/edo laboral, indarrean dagoen legeria eta eragiten dieten hitzarmenak betez, Udala erabat salbuetsita geratuko delarik kontratistaren eta haren langileen arteko harremanen gaineko edozein erantzukizunetatik.

Será de exclusiva cuenta del adjudicatario la retribución del personal que emplee en la prestación del servicio objeto de contratación, siendo de su cargo cualesquiera costos sociales y/o laborales, cumpliendo con la legislación vigente y los convenios que le afecten, quedando el Ayuntamiento totalmente exento de responsabilidad sobre las relaciones entre el contratista y su personal.

39. Baliabide materialak eta giza baliabideak.

39. Medios materiales y personales.

Kontratista behartuta dago, obra egiteko, kontratuan hitzartutako epeetan behar bezala gauzatzeko

La contratista queda obligada a aportar y mantener, para la realización de la obra el equipo y medios auxiliares que

beharrezkoak diren ekipo eta bitarteko osagarriak jarri eta mantentzera, bereziki kontratua gauzatzeko ardura duten pertsonen zerrendan sartuta daudenak.

sean precisos para la buena ejecución en los plazos convenidos en el contrato y, en particular, los que hayan sido incluidos en la relación de personas responsables de la ejecución del contrato.

Enpresako langileak enpresa kontratistaren mende egongo dira soil-soilik, eta bakarrik kontratistak izango ditu enplegatzaile izateari datxezkion eskubide eta obligazioak.

El personal de la empresa dependerá exclusivamente de la empresa contratista, y únicamente ésta tendrá los derechos y obligaciones inherentes a su condición de empleadora.

Administrazioak desegokitzat jotzen duen edozein elementu baztertu ahal izango du, eta enpresak ebazpen horren aurka erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du hamar egun naturaleko epean, Administrazioak idatziz egiten dion jakinarazpenaren egunetik hasita.

La Administración podrá rechazar cualquier elemento que considere inadecuado, con el derecho de la empresa a reclamar frente a tal resolución ante la Administración en el plazo de diez días naturales, contados a partir de la notificación que le haga por escrito la Administración.

40. Exekuzio Baldintza Bereziak.

40. Condiciones Especiales de Ejecución.

1. Langabeziak bereziki kolpatutako kolektiboen enplegua sustatzeko baldintzak.

1. Condiciones para el fomento de empleo de colectivos especialmente afectados por el desempleo.

Kontratua obratzeko behar diren langileen kontratazio berrietan, enpresa kontratistek lehentasuna emango diete langabezia-egoeran dauden pertsonei, bat etorriz Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren 208. artikuluan aurreikusitakoarekin; halako maneraz non, egin beharreko lan zehatzaren ezaugarriak ezintzen duela justifikatu ezik, bermatuko baitute kontratazio berrien %15 gutxienez langabetuei egingo zaizkiela.

En las nuevas contrataciones de personal necesario para la ejecución del contrato, las empresas contratistas darán preferencia a las personas que se encuentren en situación legal de desempleo conforme con lo que prevé el artículo 208 del Real decreto legislativo 1/1994, de 20 de junio, por el cual se aprueba el Texto refundido de la Ley general de la Seguridad Social ; de manera que, salvo justificación de su imposibilidad atendiendo a las características del concreto trabajo a desarrollar, garantizarán que al menos un 15% de las nuevas contrataciones que se realicen se refieran a personas de estos colectivos.

2. Berme sozialeko baldintzak.

2. Condiciones de garantía social.

Lan-baldintzak betetzeko baldintzak.

Condiciones de cumplimiento de condiciones de trabajo.

Enpresa kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasun arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, eta, bereziki, kontratistak lan-ordenantzaren eta dagokion hitzarmen kolektiboaren xedapenak bete beharko ditu eman beharreko prestazioak lan-ordenantzaren edo hitzarmen kolektiboaren mende daudenean.

La empresa contratista está obligada al cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia laboral, de seguridad social y de seguridad y salud en el trabajo y en particular cuando las prestaciones a desarrollar están sujetas a ordenanza laboral o convenio colectivo, la contratista está obligada a cumplir con las disposiciones de la ordenanza laboral y convenio colectivo

correspondiente.

Enpresa kontratistak, kontratua gauzatzeko aldi osoan bete beharko ditu aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan ezarritako arauak eta baldintzak, eta kasu guztietan esleipenduna behartuta dago betetzera langileen soldata-baldintzak, aplikatu beharreko sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera (122.2 artikulua).

La empresa contratista está obligada a cumplir durante todo el periodo de ejecución del contrato las normas y condiciones fijadas en el convenio colectivo de aplicación, si bien en todo caso, el adjudicatario estará obligado a cumplir las condiciones salariales de los trabajadores conforme al Convenio Colectivo sectorial de aplicación. (art.122.2)

Azpikontratazioaren inguruko baldintzak.

Condiciones en relación con la subcontratación.

Azpikontratazio bat gertatzen denean, kontratista nagusiak bere gain hartzen du Administrazioaren aurrean kontratua gauzatzeko erantzukizun osoa, administrazio-klausula zehatzen Pleguekin eta kontratuaren baldintzekin bat etorriz, baren harturik gizarte eta lan arloko obligazioak betetzea.

En caso de subcontratación el contratista principal asume la total responsabilidad de la ejecución del contrato frente a la Administración, con arreglo estricto a los pliegos de cláusulas administrativas particulares y a los términos del contrato, incluido el cumplimiento de las obligaciones en materia social o laboral.

3. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako baldintzak.

3. Condiciones para la igualdad de la mujer y el hombre.

Kontratistak bermatuko du kontratua gauzatzen den bitartean dokumentazioa, publizitatea, irudia edo materialak ez direla erabiliko modu sexistan, saihestuko direla emakumeen aurkako bereizkeria edo estereotipo sexistak eragiten dituzten irudiak eta sustatuko dela berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate anitzen balioak dituen irudi bat.

El contratista garantizará que en la ejecución del contrato la documentación, publicidad, imagen o materiales se realice un uso no sexista del lenguaje, y se evite cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y se fomente una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.

Kontratistak bete egin beharko ditu Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipioak eta obligazioak.

El contratista deberá cumplir los principios y obligaciones establecidos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, del Parlamento Vasco, para la Igualdad de Mujeres y Hombres; y en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.

250 langile baino gehiago dituen enpresa kontratistak justifikatu egin beharko du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat daukala, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean aurreikusitako edukiarekin.

La empresa contratista con más de 250 trabajadores, deberán justificar que dispone de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres con el contenido previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Hombres y Mujeres.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak bermatu egingo du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna alderdi hauetan: tratua, enplegurako sarbidea, lanbide-sailkapena, sustapena, iraunkortasuna, prestakuntza, azkentzea, ordainsaria, lan-kalitate eta egonkortasuna, eta lanaldiaren iraupen eta antolamendua.

En la ejecución del contrato, la empresa contratista o subcontratista garantizará la igualdad entre mujeres y hombres en el trato, en el acceso al empleo, clasificación profesional, promoción, permanencia, formación, extinción, retribuciones, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral.

Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar badira eta enpresa kontratistak edo azpikontratistaren plantillan emakumeen ordezkaritza desorekatuta badago, kontratua gauzatzeko eta kontratua gauzatzen den artean lehentasuna eman beharko dio emakumeak kontratatzeari. Plantilla desorekatutzat joko da emakumeen ordezkaritza edo presentzia guztizkoaren %50 baino txikiagoa duena.

En el caso de que para la ejecución del contrato sea necesaria una contratación nueva de personal y la empresa contratista o subcontratista cuente con una representación desequilibrada de mujeres en plantilla, deberá para la ejecución del contrato y durante el pazo de ejecución, dar preferencia a la contratación de mujeres. Se entenderá por plantilla desequilibrada aquélla que cuente con una representación o presencia de mujeres inferior al 50% del total de la misma.

4. Azpikontratistei ordainketak egiteko baldintzak (217. art.)

Kontratistak bete egin beharko ditu SPKLren 216. eta 217. artikuluetan ezarritako ordainketa-epeak, kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei zor zaizkienak.
Prestazioa amaitutakoan orobat aurkeztu beharko dute, Udalak eskatuta, ordainketa horiek bete izanaren egiaztagiria, SPKLren 216. artikuluan eta merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeen barruan, aplikagarri zaien neurrian.

4. Condiciones de cumplimiento de pagos a subcontratistas. (art.217)

El contratista deberá cumplir los plazos de pagos debidos a los subcontratistas o suministradores que participen en el contrato establecidos en los artículos 216 y 217 LCSP.

Asimismo, deberán aportar a solicitud del Ayuntamiento justificante del cumplimiento de los pagos a aquellos una vez terminada la prestación, dentro de los plazos de pago legalmente establecidos en el artículo 216 de la LCSP y en la Ley 3/2004 de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, en lo que le sea de aplicación.

Exekuzio baldintza berezi hori betetzen ez bada, zigorrak ezarriko dira.

El incumplimiento de esta condición especial de ejecución dará lugar a la imposición de las penalidades.

41. Kontratuaren aldaketa.

1. Behin kontratua perfekzionatu ondoren, bakarrik aldatu ahal izango da interes publikoko arrazoiengatik, hala aurreikusi denean edo, aurreikusi gabeko kasuetan, legean aurreikusitako inguruabarrak gertatzen direnean. Hau da:

41. Modificación del contrato.

1. Una vez perfeccionado el contrato, sólo podrá ser modificado por razones de interés público cuando así se haya previsto o, en los casos no previstos , cuando concurran las circunstancias previstas en la ley. Esto es:

A) Aurreikusitako aldaketak: (204. art.).
Kontratua indarrean dagoen bitartean aldatu ahal izango da baldin eta Karatulan aukera hori aurreikusita badago eta argi, zehatz eta argi eta garbi zehaztu bada zein baldintzatan aplikatu ahal izango den, bai eta noraino eta zein muga eta izaerarekin; halaber zehaztuko da zein baldintzatan baliatu ahal izango den kontratua aldatzeko aukera, objektiboki egiazta daitezkeen inguruabarrei erreferentzia eginez. Aldaketak ezin izango du ekarri kontratuan aurreikusi gabeko unitate-prezio berririk ezartzea.
Nolanahi ere, kontratua bakarrik aldatu ahal izango da hasierako prezioaren %20raino.
B) Aurreikusi gabeko aldaketak (205. art.).
